



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



**Asteazkena**  
**2010-05-12**

VIII. URTEA 1998. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Onintza Lasa eta Josebe Iturrioz herenegun eskainitako prentsurrekoan. A. IMAZ

## EMAKUMEEK HISTORIAN UTZITAKO ONDAREA AZTERGAI

**TOLOSA** Emakumeak Tolosako historiari eginiko ekarpenak aztertzeko ikerketa beka abiarazi du bigarrenago Udalak 3

## Ezagutza sukaldea, ardoa eta aisialdia, Zerkausian

**TOLOSA** 'Ilargi Coupage' azoka antolatu dute ekainerako; ezohiko edari zein jakiak izango dira 2

## Otaño omentzeko bertso saioa egingo dute larunbatean

**ZIZURKIL** Peñagarikanok Otañoaren paperean abestuko du beste sei bertsoarekin batera 5

## Kultur ekitaldi ugari Amezketan eta Albizturren

**KULTURA** Amezketako Kultur Astea kirolaren inguruko hitzaldi batekin hasiko dute gaur eta Albizturren umeek loreak landatuko dituzte 6

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

# Gastronomia artearekin batzearen emaitza

**Gastronomia** » 'Illargi Coupage' azoka berezia izango da ekainean, Illargi Delicatessen-eko arduradunen eskutik.

INIGO TERRADILLOS

Orain arte gurean izan ditugun azoketatik zertxobait aldenuz, ideia berritzaile bat ezagutu eta dastatzeko aukera izango dugu laister. Tolosako Illargi Delicatessen-eko Mireia Carceller eta Eduardo Mansoren ekimenez, aisia, plazerra eta ezagutza sukaldia eta ardoarekin nahastuko dituzte ekainaren 7tik 13ra Zerkausian egingo duten *Illargi Coupage* azokan. Gastronomin ohikoak ez diren azken berrikuntzak ekarriko dituzte, horiez ikasiko ahaliko da, eta sentsazio berriak probatzearekin batera, kultur ekimenez gozatu ahaliko da.

«Orain arte gurean egin ez den ideia berritzaile bat» zuen Mireia Carceller-ek buruan. «Nahiko sortzaile naiz, eta etengabe gauza berriak egitea gustatzen zait, sortzeko beharra izaten dut; ardoarekin eta gastronomiarekin zerbait egin nahi genuen, artearekin uztarturiko zerbait. Horixe baita sukaldaritza nire ustez, artearen barruan dagoen zerbait». Osagai guztiak maila berean izango dituen *coupage* edo nahasketa hori izan da ekimenaren abiapuntua, eta pixkanaka kargaratzen hasi ziren.

## «Hasieratik babes»

Ekimena diseinatu eta udaletxean proposatu zuten, eta baiezkota eman zioten. Beraz, ideia martxan zuten, eta hori egiteko lekua, hau da, Zerkausia, ere bai. Jendea bere ideien berri ematen hasi zuten orduan; «Urtarrila bukaeran



Eduardo Manso eta Mireia Carceller Illargi Delicatessen-eko jabeak. NESTOR ARDANAZ

hasi nintzen bata zein bestearekin hitz egiten. Nire harridurarako oso erantzun ona izan du jendeak, asko gustatu baitzaie ideia, eta aurrera egiteko animatzeaz gain, parte hartzeko prest azaldu dira hasieratik». Dena den, antolatzailerak dioen bezala, «hori ez da arraroa gurean, Tolosan jendeak beti izaten baitu gauzak egiteko eta laguntzeko gogo». Horrela, jendea pixkanaka proiektuan sartzen zihoan heinean hasierako ideia txikia handituz eta forma hartuz joan zen.

## Eskualdekoen parte-hartzea

Zerkausiko hiru solairuak hartuko ditu *Illargi Coupage* ekimenak, eta solairu eta zonalde bakoitzak helburu edo egiteko desberdina izango du. Bazkari eta afariak beheko pisuan zerbitzatuko dituzte, eta hor bertan erakusketen zonaldea ere jarriko dute; erdikoan, kristalezko borobilean, ardo-dastatzeak eta hitzaldiak egingo dituzte, eta goiko pisuan ardoak eta pintxoak dastatu ahaliko dira eta kafea eta kopak hartu ahaliko dira, giro berezian.

Parte hartuko duten sukaldarien artean, Tolosako Hernialde eta Fronton eta Berrobiko Iriarte, Burrentzi, Julian eta Nikolas erretegikoak daude. Postreak Casa Ezeiza eta Ezeiza etxean esku joango dira, eta Gorrotxategik ere hartuko du parte gozoein eginiko afari berezi batekin.

Eskualdekoen parte-hartzea ez da horretara mugatzen, izan ere, Iñaki Arratibel medikuak ondo elikatzeaz eta osasunaz hitz egingo du, Nisa Goiburua eta Sukru Kara-

kus artistek pintatu egingo dute, Nestor Ardanaz argazkilaria gastronomia eta ardoari buruzko argazki erakusketari jarriko du, eta Tolosako merkatariek ere parte hartuko dute desfile batekin.

## Egunerokoan lekuri ez duten jakiak

Artea eta gastronomia batzeko ideiatatik ezezik, ekimena berezia izango da gure egunerokoan probatu ezin ditugun gauza asko eskura izango ditugulako. «Maiz ezin izaten ditugu gauza berri asko egin, denboragatik edota leku faltagatik, esaterako, baina azoka honetan helburua berritzailea izatea izango da», azaltzen du Mireia


## «Hasieratik jende ugari parte hartu eta lagundu nahi izan du; Tolosan oso ohikoa izaten da hori»

## «Gure egunerokoan ezohikoak diren jakiak eta edariak dastatzeko aukera emango du»

Carceller-ek. «Ideia berriak sortzea gogoko dugun taldea osatu dugu, eta guztion artean irudimena landuko dugu, mugarik gabe; ilusio eta gogo handiz ari gara horretan». Hala, munduko haragi desberdinak, kabiarrak, ostrak eta ezohikoak diren ardoak ezagutu eta probatu ahaliko dira, besteak beste.

Bazkari eta afarietarako izena eman beharko da Tolosaldea Tour bulegoan, 943 69 74 13 zenbakian, [www.tolosaldea.net](http://www.tolosaldea.net) webgunean edota [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbidetan. Gainerako ekitaldietan ez da izena eman beharko, baina txartelen bidez ordaindu beharko da.

## » ZERKAUSIAREN BANAKETA



Zerkausiko hiru solairuetan banaturik egongo da azoka, hiru zonaldeetan. HITZA

### Zona 1

■ **Jantokia.** Bazkari edota afariaren arabera 130 lagun ingururentzat lekua izango du. Osteguna eta ostiralean afariak, larunbatean bazkaria eta afaria eta igandean bazkaria. Afari gozoa, turkiar afaria, munduko haragiak, *Ezer ez da dirudiena* izeneko afaria, eta *Coupage* bazkaria.

### Zona 2

■ **Erakusketen gunea.** Nestor Ardanazen gastronomia eta ardoaren inguruko erakusketak, Nisa Goibururen pintura eta eskultura erakusketak eta Sukru Karakusen pintura erakusketak.

### Zona 3

■ **Ardo-dastatzeen gunea.** Upategi ugari hartuko dute parte, cava-aren inguruan ariko dira, kabiarraren eta ostren hezitzaileak hartuko

dute parte, eta osasuna eta elikaduraz ariko da Iñaki Arratibel medikua. Ardo-dastatzeetan parte hartu ahaliko da, aurrez izena emanda 943 65 42 29 zenbakian, edo Illargi tabernan. Ekitaldiaren arabera ordainduko da.

### Zona 4

■ **Chil-Out terraza.** Kafea eta kopak probatu ahaliko dira. Donostia-ko Cebanc eskolako ikasleek koktel bereziak prestatuko dituzte, eta zuzeneko musika izango da entzungai. Kafea eta koparako txartela 3 euro kostako da.

### Zona 5

■ **Ardoaren Mundua eta Pintxoaren dastatzea.** Parte hartuko duten upategietako ardoak dastatzeko aukera izango da, eta pintxo ugari aukeran. Hartzten denaren arabera ordainduko da txartelen bidez.



Onitza Lasa, Berdintasun zinegotzia, eta Josebe Iturrioz, Berdintasun eragilea, herenegun pretsaurrekoan. I. GARCIA

## Emakumeen ekarpen historikoa ikertzeko aukera zabaldu du berriro Udalak

**Tolosa** » II. Ikerketa Beka eskuratzeko proiektua ekainaren 23a baino lehen aurkeztu behar da; Udalak 9.000 euro jarriko ditu.

### ERREDAKZIOA

Iaz bezala, aurten ere Tolosako Udalak ikerketa beka bat eskainiko du. Emakumeek Tolosako historiari egindako ekarpenak aztertzeko, 9.000 euro jarriko ditu administrazioak mahai gainean.

Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 23an amaituko da. Oinarrizko baldintzak Tolosako

Udalaren web orrian aurki daitezke. Iaz, I. Ikerketa Beka, *Inauteriak eta emakumeak* proiektuak irabazi zuten.

### Ikerketa «garrantzitsua»

Onitza Lasak, Tolosako Berdintasun zinegotziak, eta Josebe Iturriozek, Berdintasun eragileak, herenegun aurkeztu zuten berdintasunaren II. Ikerketa Beka.

Zinegotziaren esanetan, azterketaren helburua emakumeek Tolosari eginko ekarpenak aztertzea da, «gure herriari buruzko informazioa aberasteko». Administrazio publikotik egin daitezkeen ikerketetatik haratago, ekimen ho-

nekin, emakumeen ekarpena arlo desberdinetan kokatu nahi da; «adar asko» aztertu nahi dira beraz.

Lehenengo urtean proiektu ugari aurkeztu ziren. Onitza Lasarentzat hori «oso pozgarria» izan zen, «berdintasunaren inguruan jendeak lan egiteko gogo asko duela azaltzen baitu horrek». Aurten ere parte hartze handia espero dute.

Josebe Iturriozek beka hau «kaltitateko beka bat dela» azpimarratu zuen. Ikerketaren garrantzia ere ez danolana hiko Berdintasun eragilearen esanetan: «Oso garrantzitsua da historian zehar To-

losan emakumeak eduki duen papera berreskuratzeko. Ezezagun zaigun gauza bat da. Adibide bat jartzeko, kaleen izenak ikusten baldin baditugu, gehienak gizonezkoenak dira. Baina jakin badakigu emakumeak asko eman diola Tolosari».

### 'Inauteriak eta emakumeak'

Beka nork jasoko duen epaimahai batek erabakiko du. Iaz *Inauteriak eta emakumeak* proiektuak irabazi zuten I. Ikerketa Beka. Eta lan hori praktikan jartzeko zer egin eztabaidatzen ari dira une honetan, horrela azaldu zuten behintzat Lasak eta Iturriozek.

Onitza Lasaren esanetan, lan honen bidez argi ikusi dute Inauterrien garapena: «Orain dela ez asko damak, erreginak eta antzeko elementuak genituen. Batzuk gustuko zituzten eta besteek ez. Hori aldatu zen ordea. Beste datu bat familiar parte hartzea da konpartsetan. Hau ere gauza berria da. Emakumeen presentzia handitzen joan da kalean eta aldaketak ikusten dira. Gerra aurreko Inauterietatik hona berri, gauzak izugarri aldatu dira».

Hala eta guztiz ere, berdintasunaren bidean lan asko gelditzen da egiteko, «batez ere estereotipoek oso bizirik jarraitzen dutelako».

### » II. IKERKETA BEKA

### 'Emakumeek Tolosako historiari egindako ekarpena'

■ **Epea.** Ekainaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira proiektuak.

■ **Baldintzak.** Oinarrizko baldintzak eta eskaera orriak udaletxean aurkitzen dira. Tolosako Udalaren web orrian, Berdintasun saillean sartuta ere eskura daitezke: [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)

## Laburrak

### Kantujirako entsegua gaur 20:00etan egingo dute

**TOLOSA** » Gaur Tolosa Kantari ekimenak entsegua antolatuko du 20:00etan Musika Eskolan, Rondilla kalean. Hil honetan Tolosako kantujira hilaren 26an izango da. Bide batez, ekimeneko kideek azaldu dutenez, oraindik plaza batzuk gelditzen dira Baionara joateko. Hilaren 22an, larunbatean, *Baionan Kantuz* kantujirari hartuko dute parte eskualdekoek. Autobuseko txartelak Xirimiri kafetegian aurkitzen dira salgai.

### Alpinok mendi irteera antolatuko du igande

**TOLOSA** » Alpino Uzturre elkarteak hilaren 16rako mendi irteera antolatuko du. Txangoa Belate mendatean hasi eta Auritzen bukatuko da. Iraupena 8 ordu t'erdikoa da. Dena den, bost orduko txangoaren ostean (Urkiaga mendatean) autobusa zain egongo da Auritzera joateko, ibilaldia amaitu nahi duenarentzat. Autobusa Santa Klaratik 06:00etan irtengo da. Bazkideek 11 euro ordaindu behar dute, eta ez bazkideek 13. Izen emateak elkartean, 943 65 27 89 telefonoan edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidean.

### Jon Mintegiagaren hitzaldia hilaren 14ean

**TOLOSA** » Sanblasipiko Gazte Asanbladak maiatzeko ostiraletan hitzaldiak eta kontzertuak antolatu ditu, Izaskun auzoko Otsabi Auzo Elkartearen. Hilaren 14ean, 19:00tan, Jon Mintegiaga ibaritarak *El Filtro, memorias de los refugiados vascos en Uruguay* liburuarren inguruan hitz egingo du.



## Uraren gaia aztertu dute udaletxean

**BERASTEGI** » Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan berastegiaren txanda izan zen atzokoan. Eskolako 123 ikasleek egindako lana, uraren inguruko, udal ordezkariak aurkeztu zieten atzokoan. Ikasleek proposa-


menak egin eta konpromisoak hartu zituzten. Gaur Villabonako eta Anoetako ikasleak joango dira udal bilkuretar, bihar Ibarakoak eta etzi Bidegoangoen txanda izango da. A. IMAZ

## Oargi elkartearen bertso afaria hilaren 14ean

### ERREDAKZIOA

Hilaren 14ean bertso afaria antolatu du Gazte Herria ekimenak Tolosako Oargi elkartearen. Txartelak Raku, Meskal eta Denak taberne-

tan aurkitzen dira. Langileek 15 euro eta langabetu nahiz ikasleek 10 ordaindu beharko dituzte. Bildutako dirua Bruselara joango den autobusa ordaintzeko izango da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 'Voith-Gorostidi auzia' ren inguruko azalpenak, gaur udaletxean

**Hirigintza** » Hektor Espin arkitektoak eta Aitor Iztueta hirigintzako letratuak hitzaldia eskainiko dute 20:00etan.

## ERREDAKZIOA

Tolosako ezker abertzaleak *Voith-Gorostidi auziaren* inguruan hainbat ekimen antolatu ditu aste honetarako. Batetik, gaur 20:00etatik aurrera udaletxean hitzaldia eskainiko dute Hektor Espin arkitektoak eta Aitor Iztueta hirigintzako letratuak 8 urteko *lotsagabekeria* izenpean, eta bestetik, ostiralean, hilak 14, elkarretaraztea egingo dute udaletxearen aurrean 19:30ean *Tolosako udalean ustelkeriarik ez* lelopean.

Euskadiko Auzitegi Nagusiak pasa den apirilaren 17an ezker abertzaleak eremuaren eraikigarritasunaren harira jarritako helegitea onartu zuen, bertan egitera doazen etxebizitza kopurua gehiegizkoa dela esanaz. Ezker abertzaleak Tolosako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia salatu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko urtarrilaren 30ean onartutako akordioa inpugnatzu. Auzitegiak Voith-Gorostidiko eraikigarritasuna 3,6 m<sup>2</sup>koa dela eta legeak 2,3m<sup>2</sup>koa izan behar

duela esan zuen. Aferak hautsak harrotu ditu herrian, eta beraz, ezker abertzaleko kideen iritziz «zenbait argibide eman behar dira», izan ere «epaiak mugarrirantzitsua ezarri badu ere, auzia ez da epiairekin hasi, ezta gutxiago ere, eta ezta epiairekin amaitzen».

Horiek horrela, gaurko hitzaldiaren helburua «auziaren 8 urteko ibilbidearen begirada bat eskaintzea» dela dio Espinek, hartara epaiak sortu duen egoera hobetu ulertu ahal izateko.

## 2002. urtea

Gaurko hitzaldian, hortaz, Espinek eta Iztuetak 2002. urtera egingo dute salto, Tolosako Udala Gobernua Euskal Herritarrok taldearen esku zegoen urtera.

Arkitektoak argitutakoaren arabera, urte horretan Voith-Gorostidiko eremuko enpresa eta lurjabe handienak euren jarduerak bertatik mugitzeko asmoa adierazi zuten. Ezker abertzaleak «begi onez» ikusi zuen lekualdatze proposamena, baina Udala Gobernuak ez zuen prozesuarekin bat egin, «izan ere, lurralde antolaketa eta hirigintza egiteko bi eredu kontrajarrien arteko talka» eman zen.

«Ezker abertzalearen irizpidea beti izan da lurralde antolaketa eta hiri antolamendua administrazio



Voith-Gorostidi eremuaren inguruko urbanizazio proiektuko bi irudi. HITZA

publikoaren zereginak direla, esku-hartze estrategiko edota garrantzitsuetan behintzat», argitu du. «Lurralde antolaketa eta hirigintzak lurjabeen aurreikuspen eta beharrei erantzun behar die lehenik eta behin, edota herriaren garapen

orekatua eta herritarren beharrak izan behar dute garapenaren ardatz nagusia?», galdetuko dute.

Era berean, aferari konponbidea emateko proposamena ere jarriko dute mahai gainean gaurko hitzaldian.

## Botarriko Txemari Esteban izango da larunbatean Plaza berrian

**Tolosa** » Tolosako Azokak + KM 0 ekimenaren baitan jakit bat prestatu eta jendearen artean banatuko du.

## ERREDAKZIOA

Apirilaren 24an hasitako Tolosako Azokak + KM 0 ekimenarekin jarraituz larunbat honetan Tolosako Botarri jatetxeko (Oria kalea) Txemari Esteban izango da Berdura plazan.

## Barazki entsalada

Zerkausian erositako produktuekin ondorengo egingo du: garraian-garriko barazkiekin inprobisatutako entsalada Idiazabal edo artzain gaztarekin egindako ozpin olioarekin bustiko du eta edalontzi garden batean aurkeztuko du, ogi zati batekin.

Guzti hau Berdura plazan prestatuko du eta bertan egingo du 11:30ean mokadu goxo honen banaketa.

# Alikanteko dantza tradizionalak ikusteko aukera asteburuan

**Dantza** » Pasa den otsailaren egin behar zuten bisita, baina azkenean arrazoi desberdinak medio ezin izan ziren etorri.

## ERREDAKZIOA

Asteburu honetan, hilak 15 eta 16, Grup de danses D'Ibi-ko (Alikanteko) dantzariak Tolosa bisitatuko dute Udaberri dantza taldearen eskutik. Valentziarrak otsailaren ziren etortzekoak, baina arrazoi ezberdinengatik bisita atzeratu behar izan zuten.

Alikanteko dantza talde honekin duela urtebete inguru jarri ziren harremanetan Udaberriko kideak. «Elkartruke bat egiteko ideia sortu zen, eta honela, pasa den Uztailan Udaberri dantzari taldeak Ibi (Alikante) herrira egin zuen bisita. Asteburu bat igaro genuen bertan, herriko txoko interesgarrienak ezagutzeko, besteak beste, herriko eraikuntza esanguratsuenak eta museo bat edo beste. Horrez gainera, gure kultura eta euskal dantzak erakusteko aukera izan genuen larunbat arratsaldean egin genuen emanaldi batean», argitu du.

Oraingoa, beraz, beraiek izango dira Tolosa ezagutzeko aukera izango dutenak. 30 lagun ez osatu-

riko taldea etorriko da, 16 urtetik 45 urtetara zabalzen dena.

## Hasieran emakumezkoak bakarrik

1945. urtean sorturiko dantza taldea da Alikanteko, hasiera batean emakumez soilik osatzen zena eta urte batzuk beranduago talde misto bilakatu zena.

Lehen urteetan, euren burua ezagutzera eramatea zen helburu nagusia eta horretarako Espainia mailako hainbat jaialditan parte hartu zuten. Urteak aurrera, nazioartera salto egin zuten.

Horrez gainera, helduen taldeetik haratago, dantza eskola bat ere sortu zuten eta bertatik adin guztietako ikasleak pasatu dira, 1.000 inguru. «Nabaria da beraz, gure dantza taldearen gisan, Ibiko dantza taldea ere historia handia duen taldea dela», argitu dute tolosarrak.

## Egitaraua

Larunbata goizean iritsiko dira Tolosara eta bazkalordura arte herriko txoko ezagunenak erakutsiko dizkiete Udaberrikoek; Zerkausia, Santa Maria eliza, herriko Alde Zaharra, azoka... eta baita Topic eta bere museo berria ere. Bisitarekin amaitu ondoren, Lizardi elkartean bazkalduko dute guztiak batera.

Arratsaldean, Ibin egin bezala, bi taldeek dantza emanaldia eskainiko dute Berdura plazan 18:30etik aurrera.

## Alikanteko dantza tradizionalak gurean

«Alikanteko dantza tradizionalak ikusteko aukera paregabea izango da. Gure lagunengatik eta orrazkerak benetan bereziak direla aitatu nahi dugula eta kultur elkartruke ederra izango da dantzarien artean», zehaztu dute.

«Lehenik, Udaberri dantzari taldeak egingo du bere emanaldia. Tarte honetan, euskal herriko hainbat dantza ikusteko aukera izango da, jakina baita gure dantza taldeak Euskal Herri osoko dantza tradizionalak oholatza gainean jarzuten dituela. Honen ondotik, Ibiko dantzarien uena izango da. Hainbat dantza eskainiko dizkigute, musikari eta kantarien laguntzaz», gaineratu dute.

Emanaldiaren ondoren, Eguzkitza sagardotegian afalduko dute. «Sagardotegiak gure kulturaren beste zati garrantzitsua direla kontuan izanik, ideia ona iruditu zaigu gure lagunak honelako leku bat ezagutzera eramatea, bertan afari lege egingez», zehaztu dute.

Zuloaga Txikin egingo dute lo eta igandean gosalduta eta gero abiatuko dira euren herrira. d

## Harpidedun egiten bazara

## aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaia eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzaitz gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzue aukeran.

HARRERMANETARAKO  
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo duzue BERRIaren harpidedunen artean, Eroski Bidaia-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

EROSKI BIDAIA

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria

# Otañoren inguruko bertso saio handia Intxaur frontoian

**Zizurkil** » Larunbatean, 18:30etik aurrera Amuriza, Peña, Paia, Agirre, Alberdi, Maia, Arzallus eta Iturriaga bertsolariak ariko dira.

## ENERITZ MAIZ

Asteburu oparoaizan berri dute zizurkildarrek eta aste honetan ere, ekitaldi garrantzitsuak izango dituzte Pello Mari Otañoren heriotzaren 100. urteurrenaren harira.

Ostiralean, Seme Kuttun izen datzeaz gain, bere izena daraman plaza, plaka berria jarri zuten testu honekin: *Nijai nintzan Euskal lurreko leku pozgarri abetan eta euskera irintsi nuben lenbiziko asanetan*. Ondoren, herri afaria egin zuten eta jende ugari bildu zen. Joxin Azkueren, Hernandorena Kultur Taldeko kidearen, hitzetan «oso ondo atera zen guztia eta ordu txikiak arte luzatu zen festa». Igandean berriz, *Otañoren aztarnak Zizurkilen* ibilaldira herritar ugari bildu zen. Ondoren, Urkamendi Elkartearen, bazkaria egin zuten.

**Esنال eta Eguzkitzerekin mahai-ingurua Atxulondon**  
Gaur 19:30ean, Atxulondo Kultur Etxean Pello Esنال eta Xabier

Eguzkitzerekin, mahai-ingurua izango da. Bertan, Pello Mari Otaño izango dute gaitzat eta *Otaño: Bat bitan banatzen da* izenburupean ariko dira. Herritar guztiak gonbidatuak daude bertan parte hartzera.

## Otaño bertsoan

Larunbaterako, San Isidro eguna, Intxaur frontoian 18:30ean, Pello Mari Otañori omenezko bertso saio handia prestatu dute eta doan izango da.

Xabier Amuriza bertsolariak gai-jartzaile lanak egingo ditu eta Anjel Mari Peñagarikanok berriz, Otañoren paperean abestuko du.

Gainerako bertsolariak Agirre, Maia, Paia, Alberdi, Arzallus eta Iturriaga izango dira.

## » MAIATZA SALTSAN

### Gaur, 19:30ean

■ **Mahai-ingurua.** Pello Esنال eta Xabier Eguzkitzerekin izango da, *Otaño: Bat bitan banatzen da*.

### Hilak 15, 18:30ean

■ **Bertso Saioa.** Intxaur frontoian. Doan.  
■ **Bertsolariak.** Amuriza gai-jartzaile. Peñagarikanok Otañoren paperean eta Agirre, Alberdi, Paia, Maia, Iturriaga eta Arzallus.



Plaka berria agertu zuten unean. Alkatea eta bi bilobak. HITZA



Otañoren aztarnari jarraituz ibilbidea egin zuten igandean. HITZA



Ibilbidearen ostean Urkamendi Elkartearen bazkaldu zuten. HITZA

## Hilaren 16an Sagain Mendi Taldekoak Jaizkibel aldera joango dira

### E. MAIZ

Asteasuko Sagain Mendi Taldeak egun osoko mendi irteera antolatatu du kostaldetik Jaizkibel ingurura. Zailtasun errazekoa da prestatu duten ibilbidea eta bost ordu eta erdi inguruan egiteko modukoa.

Irteera 08:00etan udaletxe aurretik egingo dute eta itzulera ordua zehaztu gabe dago. Izena emateko azken eguna, hilak 13, osteguna izango da. Polikiroldegian eman beharko da edota 943 69 34 00 telefonora deituta. 12 urtetik beherakoek 5 euro ordaindu beharko dute eta hortik gorakoek beerriz 10 euro.

## Igandean zikloturisten bi martxa egingo dituzte Villabonan

### E. MAIZ

Villabonako Irrintzi txirindulari elkarteak, igandera txirindulari martxa bat antolatatu du. Irteera 08:00etan izango da eta ibilbide luzea eta motza egingo dira: luzeak 130 kilometro ditu eta txikiak 92 kilometro. Izena, ostirala bitarte [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean eman daiteke. Federatuek 15 euro eta federatu ez direnek 24 euro ordaindu beharko dituzte. Egunean bertan berriz, 29 euro.

# Gaztetxearen 11. urteurrenerako prest

**Anoeta** » Gaur 'Itsasoaren alaba' dokumentala izango dute. Ospakizun handienak ostiralean eta larunbatean izango dituzte.

## E. MAIZ

Anoetako Gazte Asanbladak, Gaztetxearen 11. urteurrena ospatzeko ekitaldi ugari antolatatu ditu *11 urte gazteon ametsak lantzen* lelopean. Lehen ekitaldi gaur bertan izango da 18:30ean, *Itsasoaren alaba* dokumentala ikusteko aukera izango baita Gaztetxean bertan.

Ostiralean, 19:30ean txupinazoa botako dute eta ondoren afaria egingo dute. Janaria norberak eraman beharko du baina edateko, guztizant sagardoa egingo dela jakinarazi dute. Afalostean, mus eta futbolin txapelketak egingo dituzte.

Larunbatean, mendi martxa



10. urteurrenean, belaunaldien festa ospatu zuten Anoetako gazteek. HITZA

eginez, 09:00etan hasiko dute eguna. Ondoren, 12:00etan, patata tortila lehiaketa egingo dute eta 14:00etan, gazte guztiak mahaian bueltan bilduko dira bazkalitzeko.

Bazkaldu ostean, 17:00etan Frontenis Txapelketako finalak jokatuko dituzte. Festarekin ja-

rraitzeko, herriko tabernetan poteo egingo dute. 21:00etan gaztetxean, afaria egingo dute eta 23:00etan, kontzertuak izango dituzte: Kozka, Gabezin eta Dj Txekor.

Antolatzaileek jakinarazi duteenez «gau guztian zehar txirrikas egongo da».

## » 11. URTEURRENA

### Gaur

■ **18:30ean.** *Itsasoaren alaba* dokumentala Gaztetxean.

### Hilak 14, ostirala

■ **19:30ean.** Txupinazoa eta afaria (sagardoa egingo da, janaria norberak eraman behar du).  
■ **Ondoren.** Mus txapelketa eta futbolin txapelketa egingo dira.

### Hilak 15, larunbata

■ **09:00etan.** Mendi martxa  
■ **12:00etan.** Patata tortila lehiaketa.  
■ **14:00etan.** Bazkaria.  
■ **17:00etan.** Frontenis Txapelketako finalak.  
■ **Ondoren.** Poteoa.  
■ **21:00etan.** Afaria gaztetxean.  
■ **23:00etan.** Kontzertua: Kozka, Gabezin eta Dj Txekor izango dira. Gau guztian zehar, txirrikas edateko aukera egongo da.

## Aduna, Alkiza eta Larraulgo udaleku irekietarako begirale bila

### E. MAIZ

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, ekainaren 28tik uztailearen 23 bitartean burutuko den Udaleku Irekietarako begiraleen hautaketa deialdia egin du. Alkiza, Aduna eta Larraulen erroldatua egotea beharrezko izango da, 18 urteak beteak izatea edo 2010. urtean betetzea, euskara ondo menderatzea eta baita azterketa teorikoa egitea ere.

Izena emateko azken eguna hilaren 21a izango da eta azterketa hilaren 25ean egingo da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 69 39 30 telefono zenbakira goizez deituta eskura daiteke.

# Alegiak lortu du final laurdenetarako txartela

**Pilota** » Tolosako, Amezketako eta Albizturko pilotariak Herriarteko Txapelketatik kanpo geratu dira.

## AGURTZANE BELAUNZARAN

Pozik itzuli ziren Alegiako pilotariak Azkoititik. Aurkaria gogorra izan arren, maila ona erakutsi zuten eta final laurdenetarako txartelarekin joan ziren etxera.

Joaneko partidetan zuten desabantaila gainditu zuten kanpoan jokatu ostean. Etxean, Azkoitiren aurka 1-2 galdu ondoren, Azkoitian 2-1 irabazi zuten. Berdinketa hau, tanteoan irabazi zuten hogeitabat tantoko aldearekin.

Kadeteek Alegian jokaturako partida orekatua izan zen. 22-18 galdu zuten eta itzulerako partidaren beraiena zen final laurdenetako pasearen giltza. Ormazabal eta Muriak, partida serioa jokatu zuten, konzentratuta. Tantoak irabazten hasia zirenean aurrea hartzen hasi zirenean erraz lortu zuten tanto zaparrada 22-8ko emaitza lortuz.

Jubenilek etxeko partidaren lortutako tantoak zituzten aldeko (22-6). Hala ere, hasieran asko kostatzen ziren tantoak egiten hasia Artola eta Zabala gazteei. Partiduan seina berdindua zegoela, Beñat Zabalak aldageletako bidea hartu zuen sudurreko odol jarria zela eta. Etenaldiaren ondoren, erraz nagusitu ziren kantuan, atzean ondo jokatu eta tantoak seguru amaituz 22-8an utzi zuten markagailua.

## Berdinketa tanteoan irabazi

Bi partidak irabazita berdinketa ziurtatua zuten eta nagusiek egiten zutena eginda ere, tanteogatik 26 tantoko alde zuten. Kanporaketa gainditua zuten beraz.

Renobales eta Artolak partida txukuna jokatu zuten. Emaitza alde izan arren, irabazteko gogoz atera ziren etxeko partidako arantzak kenduz amoz (22-8 galdu baitzuten Alegian). Aurkariak ere gogor atera ziren, indartsu. Behin baino gehiagotan eduki zuten Artola errebotean. 17-15 aurretik egon ziren alegiarrak. Azkoitiarrak markagailuari buelta eman eta pixkanaka goraka hasi ziren, azkenean tanto bakarra galduz.

Amaieran 22-18ko emaitzarekin etxekoek irabazi zuten partida.

Igandean Alegian jokatu dute Oiarzunen aurka 17:00etatik aurrera. Partida orekatuak izango direla aipatu du Jose Luis Zabala taldeko arduradunak.

## Txapelketatik kanpo

Herriarteko Txapelketatik kanpo geratu diren arren egindako lanarekin gustura daude Tolosa, Amezketako eta Albizturko pilotariak.

Tolosako 10 urte zeramatzan Herriartekoan jokatu gabe eta aurtengoan parte hartzeko aukera izatea, positibotzat jo du Mikel Beloso taldeko arduradunak.

Albizturkoak ere pozik daude orain artekoarekin, beti gehiago nahi izaten bada ere. Gorka Arandia arduradunak kadeteek erakutsitako maila azpimarratu du.

Amezketan, taldea ateratzea kostabazitzaie ere, balantze positiboa egin dute. Nagusiek erakutsitako maila eta partida ikusgarriak aipatu ditu Xalton Zabala arduradunak. Final laurdenetarako txartelik lortu ez badute ere, datorren urterako eskarmentua hartzeko balio izan diela aipatu dute.



Udaletxeko balkoia apainduko dute Albizturko umeek. HITZA

# Albiztur eta Amezketako Kultur Astearen murgilduta

**Kultur Asteak** » Pilota munduko izen ezagunak eta Iñaki Elorza kirol esatariak kirola egitearen onuraz hitz egingo dute.

Zazpi-Iturri elkartearen 19:00etatik aurrera, bertso poteoa Arkaitzen hasiko da eta zahagi ardoarekin jarraituko du festak goiko pilotalekuan. 22:30ean Itzel taldeak dantzaldia emango du goiko pilotalekuan.

## A.BELAUNZARAN

Udaberriarekin batera, kultur asteak zuzen modura sortzen dira eskualdean; Albiztur eta Amezketaren txanda da oraingoa.

Amezketan gaur hasi eta larunbata bitartean ekitaldiak gainezka dator astea. Kirola egitearen onura izango daga gurko gaia, balioanitzeko gela 20:30ean. Gombidatuak, Ekaitz Saralegi, Aimar Olaizola, Aitor Zubietta eta Juan Mari Juarristi *Atano XIII.a* izango dira. Iñaki Elortza kirol esataria moderatzaile lanetan ariko da.

Hizkuntza eskubideen tailerra ere egingo dute UEMAren eskutik ostegunean 20:30ean.

Ostiralean, haurrentzako Euskal musika tresnen erakustaldia egingo dute goiko pilotalekuan arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Altuna Anaiak pilotalekuan 20:30ean, *Piano bat bertsoan* izeneko kantu afaria egingo dute. Sardinak, oilaskoa eta gazta izango dira menuan 15 euroren truke.

San Isidro egunean, larunbatean, goizeko 11:30ean jubilatuentzat hamaiketako egingo dute

## Albiztur ere kulturaz blai

Txikienean emango diote hasiera Kultur Asteari gaur. Eskolako umeek, loreak landatuko dituzte, gero udaletxeko balkoian jartzeko. Jarraian merienda egingo dute Guraso elkartearen eskutik.

Mendian Galduta antzezlanaren aurkeztuko dute ostiralean 19:00etan Herri Eskolako ikasleek, kultur etxeko areto nagusian.

Larunbatean, San Isidro eguna ospatu asmoz, sagardotegira egingo dute irteera. Orain artean afaria egin bada ere, aurtengoan bazkaria egingo dute Ikaztegiatiko Begiristain sagardotegian. Autobusa eguerdiko 14:00etan aterako da herriatik. Bazkaldu ostean, poteoarekin jarraituko dute Beasainen. Gauean autobusa Albizturrera itzuliko da Interasa dutenek 665 74 63 23 edo 667 18 18 95 zenbakietara deitu behar dute.

Inguruan aurki daitezkeen sendabelarren inguruko hitzaldia egingo dute hilaren 28an Kultur Etxean. Ekainaren 5ean, Iruñeara egingo dute txangoa herriko adinekoek.



Alegiko pilotariak, Joxean Urretabizkaia botelleroarekin eta Jose Luis Zabala arduradunarekin PATXI RENOBALDES

## Hilberriak

### ARANTXA MINTEGI GOIKOETXEA

-Goian bego-

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik. Gure bihotzetan betiko maite zaitugu.

Legorretako Ugaro Herri Ikastetxea



LEGORRETA  
2010eko  
maiatzaren 12a

### MIGUEL ARANZADI DOMINGUEZ

'Txuri'

Atzo hil zen, 70 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Emaztea: Antxon Galdos; seme-alabak: Iñaki eta Estibaliz Igartua, Mikel eta Ana Duran;

bilobak: Beñat, Nagore eta Miren.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARIA JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



ZUMARRAGA  
2010eko  
maiatzaren 12a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## Markel Olano berastegiaren ekarpenak entzuten izango da gaur

**Berastegi** » 'Foru Aldundia Zure Herrian' ekimenaren baitan herritarrekin bilduko da Gaztañondo elkarte.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundia *Foru Aldundia Zure Herrian* izeneko ekimen parte-hartzaile abian jarri du eta gaur Berastegira iritsiko da. Horiek horrela, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Markel Olano, 50 herritar ingururekin elkartzeko eta etorkizunera begirako arazoak eta erronkak partekatzen ditu. Diputatu Nagusiak zuzenean entzungo ditu partaideen ekarpenak eta kritikak eta haien galderak erantzun du. Saioa 19:00etan izango da, Gaztañondo jubitatuaren elkarte.

Foru Aldundia Zure Herrian ekimenaren helburua nagusia «Gipuzkoaren errealitatea ezagutzera ematea eta Aldundia herrietan eta eskualdeetan egiten ari den kudeaketa» azaltzea da.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

#### Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdi:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen.**: 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutz Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarano autob.**: 948 221015

**Taxi:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Lurrarendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Izaskun auzoko jaien aurretik, motorrak berotzeko erromeria

**Ibarra** » Jaiak hilaren 22an hasiko baldin badira ere, Bizi Nahi jubitatuaren elkarteak antolatuta gaur, hainbat ekitaldi izango dira.

### ERREDAKZIOA

Egun gutxi falta dira Ibarra Izaskun auzoko jaietarako, baina motorrak berotzen hasteko, gaur bertan, Ibarra Bizi Nahi jubitatuaren elkarteak antolatuta, erromeria izango da. Toka txapelketarekin emango diete hasiera ekitaldiei, eta bazkari eder batekin zein erromeriarekin amaitu.

Izaskungo jaiak ofizialki, datorren astean hasiko dira, hilaren 22an, eta hiru egunetan zehar izango dira ekitaldiak. Izaskungo Festa Batzordea arduratzen da hauek antolatzea, Ibarra Udalaren laguntzarekin.

### Zaldi karrera

Izaskungo festetan, jende gehien erakartzen duen ekitaldietako bat da zaldi karrera. Aurten, hilaren 22an izango da. Parte-hartzaileek sari potoloak etxeratzen aukera izango dute. Izan ere, irabazleak, 300 euro eta garaikurra eramango ditu. Helmugara bigarren iristen denak, 240 euro eta Joseba Barriola harategiak eskaintako bi oilasko. Hirugarrenak berriz, 180 euro. Honez gain, azken sailkatuak, Joseba Barriola harategiko zakat baba jasoko du oparigisa.



Hilaren 22an jokatuko da aurten, Izaskun auzoko belazeetan, zaldi lasterketa. ASIER IMAZ

### » IZASKUNGO JAIEAKO EGITARAUA

#### Maiatzak 12, gaur

■ **09:30.** Oinezkoak abiatuko dira elkartetik.

■ **12:00.** Autobusa abiatuko da.

■ **11:30.** Toka txapelketa gizonentzat.

■ **12:15.** Emakumeen toka txapelketa. Jarraian sari banaketa egingo da.

■ **13:00.** Meza ospatuko dute hildako bazkiden alde.

■ **13:00.** Bazkaria eta dantzaldia Los Rubi aldearekin.

#### Maiatzak 22, larunbata

■ **18:30.** Zaldi lasterketa.

■ **21:00.** Bertsotegiaren jaiak

tetxean Mañukorta eta Zeberio bertsolariarekin.

#### Maiatzak 23, igandea

■ **12:00.** Idi-proba, Olasagastiren idiak Garmendiaren aurka ariko dira.

■ **14:30.** Herri bazkaria. Ondoren Egaña eta Zubeldia bertsolarien emanaldia.

■ **18:00.** Gorriti eta bere animaliak.

■ **Ondoren.** Pintxo eta sagardo dastatzea (Zabala, Aburuzo, Gaztañaga, Insaluz eta Sarasola sagardotegiak).

■ **19:00.** Herriko trikitilarien eskutik erromeria.

#### Maiatzak 24, astelehena

■ **10:00.** Diana herriko trikitilarien eskutik.

■ **11:00.** Meza Nagusia.

■ **12:00.** Hamaiketako herrikoia.

■ **13:00.** Bertsotegiaren, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano.

■ **17:30.** Alurr dantza taldearen emanaldia.

■ **Segidan.** Haurrentzako gozokiak.

■ **18:30.** Bertsotegiaren, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano.

■ **19:00-20:30.** Erromeria eta festaren amaiera.

## Herri kirolen hirurogei urteko ibilbidea argazkitan bilduta

**Ibarra** » Kutzaren 'Gure herri-kirolak' izeneko erakusketa ikusgai dago hilaren 24ra arte, Benito Izagirre Kultur Etxean.

### ERREDAKZIOA

Kutxa Gizarte Ekintzak sustatuta, *Gure herri-kirolak* argazki-erakusketa ikusgai da egun hauetan. Benito Izagirre Kultur Etxean dago jarririk bilduma, eta zabalik egongo da hilaren 24ra arte. Interesa dutenek goizez 10:30etik 13:00era bitartean, eta arratsalde, 15:30etik 21:00etara joan daitezke hau ikustera.

Arrauna, pilota, automobilismoa, hipika, bela, futbola, saskibaloia, eskubaloia, eskia eta abarren

inguruko argazkiak dira erakusketa honetan topatu daitezkeenak. Datozen urteetan Euskal Herriko kirolen inguruan eta gainerako gaien inguruan Kutxak egingo dituen erakusketa monografikoak osatuko dituztenen adibide bat dira horiek.

Oraino honetan, euskal lurraldeko herri-kirolen munduko 60 argazkirekin osatutako bilduma bat eskaini nahi izan dute. Honenbestez, antolatzaileen esanetan, «Gipuzkoan hainbeste izan direnez eta hainbeste direnez oraindik ere kirola bere arlo guztietan egiten duten edozein adinekotasunak, merezi du dugun astialdian bertan bat eskaintzea Kutxa Fototekaren laguntzarekin hautatuz joango garen argazkien bilduma mirestea».



10:30etik 13:00era eta 15:30etik 21:00etara dago zabalik. E EZEIZA

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Mahai-inguruak

■ **Zizurkil.** Pello Mari Otañori buruz ariko dira Pello Esnal eta Xabier Eguzkitze 19:30ean Atxulondon.  
■ **Amezketan.** Kirola egitearen onur eta ariko dira lehen mailako hainbat pilotari gela polibalentean 20:30etik aurrera.

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Hektor Espin eta Aitor Iztueta Voith-Gorostidiko etxeei buruz ariko dira 20:00etan udal batzar aretoan.

### Dokumentala

■ **Anoeta.** Gaztetxearen 11. urteurrena ospatzeko egitarauaren baitan *Itsasoaren alaba* dokumentala eskainiko dute 18:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Oiarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

### » TELEBISTA

#### 28 Kanala

**208:30.** Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Klik. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erlo klip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Erlo jazz. **12:30.** Estetika. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** Ilunpean **15:00.** Erlo klip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Erlo jazz. **16:30.** Estetika. **17:00.** Muka muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafe t'ardi. **18:30.** Sakonduz. **19:00.** Planik bai. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Ilkumira.

(\*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Bigarren postua Herri Urrats Torneoan

**IBARRA** ■ Pasa den igandean Ipar Euskal Herriko ikastolen jaien egunean Herri Urrats Sokatira Torneoarekin gozatzeko aukera ere izan zen Senperen. Emakumezkoen goma gaineko txapelketa izan zen eta Ibarroko neskek bigarren egitea lortu zuten. Hiru lurraldetako sokatiralariak izan ziren (Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia) eta talde bakoitzean sei lagun aritu ziren. Lehen txandan bi tiraldiak Arabak irabazi zizkion Nafarroa Garaia eta bigarren txandan Nafarroa Garaia (Imotz-Basaburua) eta Gipuzkoak (Ibarra) berdindu egin zuten. Hirugarren txandan Arabak bi tiraldiak irabazi zizkion Gipuzkoari. Arabak finalerako txartela lortu zuen, beraz, eta Gipuzkoak eta Nafarroa Garaiek kitarakoa jokatu zuten, ibarrek irabazi zutelarik. Finalan, bi tiraldiak irabazi zizkion Arabak Gipuzkoari eta arabarrek eraman zuten, beraz, torneoko garaikurra. HITZA

roa Garaia eta bigarren txandan Nafarroa Garaia (Imotz-Basaburua) eta Gipuzkoak (Ibarra) berdindu egin zuten. Hirugarren txandan Arabak bi tiraldiak irabazi zizkion Gipuzkoari. Arabak finalerako txartela lortu zuen, beraz, eta Gipuzkoak eta Nafarroa Garaiek kitarakoa jokatu zuten, ibarrek irabazi zutelarik. Finalan, bi tiraldiak irabazi zizkion Arabak Gipuzkoari eta arabarrek eraman zuten, beraz, torneoko garaikurra. HITZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



**OSTIRALA da XI. HITZA argazki lehiaketan bozkatzeko azken eguna. HARPIDEDUNEK bakarrik bozkatu dezakete!**  
(8 argazki finalistak webgunean daude)

Parte - hartzaile guztien artean HITZA produktuen sorta bat zozketatuko dugu.

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

